

KOMIKIA. Gaur hasiko da nazioarteko jaialdi ospetsua, Anguleman, komikiaren hiri nagusian

Japoniako arkatzak

Angulemako komiki jaialdiaren zati handi bat Japoniako manga marrazki motak ezagutarazteko erabiliko dute

Eneko Bidegain | BAIONA

Japonia Angulemako nazioarteko komiki jaialdiaren erdigunean kokatuko da. Hango komikiaren —manga— berezitasuna omenduko dute bi erakusketaren bitartez. Gaur hasiko da jaialdia, eta heldu den igandea arte iraunen du. *Manga, istorio laburren hautu batean murgiltzea* izeneko erakusketak

japoniar komikiaren aberastasunak hurbiletik sentiaraztea du helburu. Komikigintza horrek Japonian zergatik duen halako arrakasta ikaragarria ulertzeko giltza batzuk ere eman nahi dituzte, hogeit bat artistaren lanen bitartez. Komiki mota horiek milioika eta milioika aletan saltzen dira, eta japoniarren eguneroko bizitzan zati handi bat betetzen dute. Erakusketa Ja-

poniako fundazioak eta Parisko japoniar kulturaren etxeak osatu dute.

Japoniar komikiak adinaren, sexuaren eta kategoria sozio-profesionalaren arabera zatikatzen direla agerian ezarriko dute erakusketek. Alabaina, Shojo Mangari buruzko erakusketak neskek neskentzat marraztu komiki estiloa erakutsiko du.

Fanzineen gunean ere izango dira japoniar ekoizpenak, Comiket taldearen presentziarekin batez ere. Japoniako marrazki bizidunek ere ohore egingen diote Angulemari. Japoniar ekoizpenaren adierazgarri diren obrak ikusten ahalko dira. Marrazki bizidun horiek komikiaren mundutik datoz. Marrazki bizidunak ez dira leku arrotzera heldu Angulemara,

bertain irudi animatuaren eskola eta enpresak baitaude. Hogeita sei kapituluko marrazki bizidun franko ekoizten da Anguleman.



Afrika ere gomit

Nazioarteko bigarren gomit nagusia Afrika da, dudarik gabe. Afrika beltzeko hamar bat estatutako autoreak bilduko dira: Benin, Burkina Faso, Burundi, Kamerun, Gabon, Madagaskar, Senegal, Txad, Togo eta Kongoko Errepublika Demokratikoa. Kinshasako lau marrazkilari espero dituzte, baina, Laurent Desire Kabila lehendakariaren herioaren ondorioz, zailtasunekin iritsiko dira Angulemara. Larunbatean bertan izan behar lukete.

Afrikan marrazkilariak haur soldaduak, gazteegi ezkontzea, hiesa, antisorgailuak, medikuntza tradizionala, gorputz zatien mozteak eta bertze gai minbera franko aipatzen dituzte. Marrazki horiek guztiak liburu batean bilduko dituzte, eta frantses eskola eta kolegioetan banatuko. Erakusketa Angulematik landa Frantziako bertze herrietan eta Afrikan gaindi ibiliko da. Equilibres & Populations erakundeak antolatuko du, komikiaren bidez gazteak Afrikako garapenaren arazoez —heziketa eta osagarri sailetan batez ere— ohartarazteko asmoarekin. Jaialdiaren antolatzailak helburu horrekin bat eginez erabaki zuten erakusketak horren aterpetzea.

Erakusketen hirugarren zati nagusia jaialdiko epaimahaiko lehendakariari buruzkoa da. Florence Cestac autorea omenduko du Angulemak aurten. Ez da maiz gertatzen emazte bat izendatzea epaimahaiko buru. Epaimahaian, gainera, gizon bakar bat sartu dute aurten. Sudur-lodiei buruzko 400 metro koadroko erakusketa batean, hark helduentzat marraztu zituen komiki eta karikaturak agertuko dira. Aldi berean, hurrentzat sortu zituen Deblok pertsonaiei buruzko erakusketa ere izanen da bertze gune batean.

Gai ilunak eta arinak umorez jositik hedatuko dira Angulemako parte zahar guztian. Era-



Gaineko eta eskuineko marrazkiak Florence Cestac-en obrari buruzko erakusketan ageri dira. Anguleman omenduko dute egile hori. Ezkerreko marrazkia, berriz, Yves Chaland 80ko hamarkadako marrazkilari ezagunari buruzko erakusketan dago ikusgai.

YVES POINOT ANGULEMAKO KOMIKI JAIALDIKO LEHENDAKARIA

«Belaunaldi gazteek grafismo berria eta berrizalea dute»

E.B. | BAIONA

Yves Poinot da jaialdiaren antolaketako lehendakaria. Ez hain gaztea izan arren, gazteen estilo berria gustatzen zaio.

■ Belgika eta Suitzako belaunaldi berrian zerk interesatzen zaitu ?

Komikia aipatzen dugularik Frantzia eta Belgika dira iturri nagusi Europan. Bob eta Johan De Moor aita-seme belgikarrak ikusiz, ohartzen gara semeak arras grafismo desberdina duela, zinez berria eta berrizalea. Suitzan, ikusi nahi genuen zer bilakatu ziren belaunaldi berriak. Ikusi ahal

izan ditudan zatien arabera, grafismoa erabat berrizalea da.

■ Zer da estilo berri eta berrizale horretan ikusten duzuna ?

Marra ez hain errealista. Mundu berrietara ekartzen gaituzten istorioak dira. Informatikak ematen du gauza landuagoen egiteko aukera. Baina nik uste dut eskua ere aski azkarra dela. Grafismo ez hain konbentzionalak aurkitzen ditugu orain. Horretan da interesgarria. Gazteak gehiago erakartzen ditu. Gu gauza klasikoagoetara ohi-tuak gara. Gaur egun bilakae-

ra behar da marrazkietan eta istorioetan.

■ Zer bilakatu dira sarike-tan parte hartu duten gazteak ?

Anitz autore ezagutu bilakatu dira. Argitaletxe ezagunetan marrazten dute. Angulema abiatze bat da haientzat. Aurten sari horri 15 000 liberako beka bat lotu diogu, gazteek proiektua bururaino eramane ahal izateko. Orain arte baino urrunago goaz. Lehen, argitaratzea proposatzen genuen.

■ Angulemako jaialditik derrigorrez iragan behar da arrakasta lortzeko ?

Ez. Hagitz ospetsu bilakatu dira hortik pasatu gabe. Anguleman adar bat bada komikientzat arte ederren eskolan. Frantziako erreferentzia bakarra da. Egia da gazteak hor biltzen direla. Gainera, badu bi urte gazteentzako gune bat eratzen dugula izen ezezagunak ezagutarazteko eta gazteei hainbat argibide emateko. Jakin dezaten zer diren autore eskubideak, argitalpen

■ Florence Cestac epaimahaiko buruak gazteekiko lotura segurtatuko du ?

Bai. Florencek bi publikoak hunkitzen ditu : helduak eta haurrak.